



## ERAKUNDE TXOSTENA

<b>Dokumentua:</b>	IO-2015-029
<b>Izena:</b>	Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Legearen aurreproiektua

**Nork egin:**

Izptua.: Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino

Proiektu-arduraduna

Eguna: 2015-07-10

**Nork onartua:**

Izptua.: Javier Bikandi Irazabal

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa

Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria

Eguna: 2015-07-10

**ANTOLAMENDU-TXOSTENA**

**Dokumentua:** IO-2014-029

**Orrialdea:** 2/21

**Proposamena:**

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren espedientea bideratzeko ardura duen instruktoreak Euskal Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduaren Legearen aurreproiektuaren antolamendu-txostena eskatu du (eskaeraren sarrera-data: 2015eko ekainaren 26a).

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren (aurrerantzean HHABHZ) egitekoen artean dago *“Erakunde instituzionalen barne-egituraketaren, antolaketaren eta sorreraren arloko sailaren jarduerak, eta erakunde horiek ezartzen dituzten xedapen orokorrak aztertu eta ebaluatzea; eta, halaber, administrazioko sail eta erakundeei aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea antolaketaren eta prozeduren arloan”*, hori arautzen baitu **apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuak, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak**, 18 c artikuluan, abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak 6.1f artikuluan arautzen duenarekin lotuta.

Kontuan hartuz HHABHZk Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Legearen aurreproiektuaren prestakuntzaren sustatzaile gisa diharduela, argi eta garbi dago gaur egun bideratzen ari diren testu horretan dagoeneko txertatuta daudela haren irizpideak eta haren ikuspegia, antolamenduaren eremuari dagokionez.

Hala ere, eta laburbilduz, ohartaraz daitezke zenbait gai garrantzitsu erakunde instituzionalen barne-egituraren, antolamenduaren eta sorreraren ikuspegitik eta prozeduren aldetik, izapidetzen ari den testu honetan hartutako aukerak, edo egoki eta bideragarri izan litezkeen beste aukera batzuk, argitzeko balio dezaketenak, horietako batzuk azaldu baziren ere Euskal Administrazio Publikoaren Lege-proiektuan, oraingo lege-proiektu honen aurrekari izan zen hartan.

**ANTOLAMENDU-TXOSTENA**

**Dokumentua:** IO-2014-029

**Orrialdea:** 3/21

**Azterketa:**

- Zioen azalpenean, ez da aipatzen ebaluazioaren parte bereizina dela plangintza, gobernantza onak edo gobernu onak osatzen duen triangelu kontzeptual garrantzitsu honetan: politika publikoen plangintza eta ebaluazioa, gardentasuna eta partaidetza. Hori aipatzea beharrezkoa da. Hori dela eta, honela txertatzea proposatzen dugu:

*"Paradigma horiek lotuta daude gobernantza ona deitzen den horrekin, triangelu kontzeptual gisa ulertuta: **plangintzak**, gobernantzak, gardentasunak eta arazo publikoetan herritarrek izan behar duten parte-hartzeak osatzen dute triangelu hori, eta abiapuntutzat hartzen da horietako bakar batek ezin duela berak bakarrik funtzionatu edo iraun, beste biak alde batera utzita.*

*Horrela, **plangintza eta** ebaluazioa beharrezkoak dira gardentasunari zentzua emateko, edukiak emateko, bestela erakusleihu huts bat baino ez bailitzateke izango ..."*

- Zazpigarren paragrafoan, hutsegite bat dago gaztelaniazko testuan:
 

*"sin sustituir la acción de gobierno ni los procesos de decisión política, y mediante el análisis de datos o la realización de proyecciones de líneas de actuación alternativas que satisfagan las necesidades o demandas sociales"*
- Egokiagoa izango litzateke 2. artikulua honela idaztea: *"Herritarrei aditzera ematea zeintzuk diren gobernuaren plangintza eta konpromiso estrategikoak, publizitate aktiboaren **eta kontuak ematearen** printzipioa sendotuz".*
- Ikuspuntu teknikitik oso egokitzat jo zen bere garaian, eta horrela jaso zen Euskal Administrazio Publikoaren Lege-proiektua izapidetu zenean, arau-testu horretan bertan Euskal Administrazio Publikoaren egitura, antolamendua eta funtzionamendua barneratu izana, administrazio-kultura garatzeko erabili nahi diren printzipio eta balioak denontzat baliagarri direlako eta koherentziaz eta modu bateragarrian artikulatu behar direlako, bai antolamenduaren eta bai funtzionamenduaren aldetik, baldin eta benetan administrazio publikoetatik balio publikoa sortzeko beste modu baten alde egin nahi badugu, gai publikoetan herritarren erantzunkidetasuna sustatuz.

## ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-029

Orrialdea: 4/21

Dena dela, Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu izanak bi lege-proiektu egin zitzala — *“bat euskal sektore publikoaren antolamendu eta funtzionamenduari buruzkoa (euskal sektore publikoa hartuta erkidegoko eta foru eta udal mailako administrazio publiko guztiei lotutako sektore publikoen multzo gisa), euskal sektore publiko efiziente eta efikaza egituratzeko xedearekin, orain dauden erakundeak arrazionalizatzeko; eta beste bat euskal sektore publikoaren gardentasunari, parte-hartzeari eta gobernu onari buruzkoa, baliabide publikoak kudeatzeko gardentasun erabatekoaren aldeko eta herritarren parte-hartzearen aldeko apustua egingo duena eta, gainera, printzipio orokorrez gain, herritarrek euskal administrazio publiko osoarekiko harremanetan dituzten oinarrizko eskubide eta betebeharrak jasoko dituen”*— ez luke oztopo izan beharko ezinbestekoa den koherentzia mantentzeko bi lege-testuetako printzipio eta balioen artean.

Horri egin zaio erreferentzia Euskal Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduaren Legearen proiektuari buruz egindako txostenean, 4.2 artikuluan agertu beharko luketen printzipioa 64. artikuluan jasotzea proposatu baita. Kasu honetan, testuan bi aldaketa egitea proposatzen dugu, bi arau-testuetan printzipioak berak izan daitezen (*letra lodiz idatzitakoa aldatu behar da*):

*k) Gardentasuna: **gardena izango da bere jardunean eta antolamenduan**, eta hark hartzen dituen erabakiei eta erabakien erantzuleei, erabaki horien deliberazio-prozesuei eta zerbitzuen antolamenduari buruzko informazio garrantzitsua ezagutu ahal izango dute herritarrek.*

*p) **Eraginkortasuna eta etengabeko hobekuntza**: etengabeko ebaluazioko prozesuak erabiliko ditu, gabeziak antzeman eta konpontzeko eta, horrela, herritarrei zerbitzu eraginkorrak emateko.*

- Erakunde batek bere eginkizuna betetzeko prozedurarik egiazkoena hauxe da: bere helburuen plangintza egitea, horiek erdiesteko bitartekoak programatzea bideragarri egingo dituzten kudeaketa-sistemen bitartez, eta azkenik, horren emaitzak eta ondorioak balioestea, helburuetan aurrera egiteko eta kontuak emateko. II. tituluan araututako guztia berritzailea, erantzukizunezkoa eta konprometitua da, eta oso baliagarria jardun publikoan lortu nahi den eraginkortasun eta egokitasunera hurbiltzeko; baina printzipio horiek

**ANTOLAMENDU-TXOSTENA**

**Dokumentua:** IO-2014-029

**Orrialdea:** 5/21

administrazio-prozedura arautzeko orduan oso finkatuak badaude ere, orain arte ia ez dira praktikan jarri.

- 5.1 artikulua. Konpromiso politikoa (obligazioa) are argiagoa izango litzateke, baldin eta zentzuzko epe bat ezarriko balitz gobernu-plana egiteko. Esaterako:

*"1. Gobernu-ekintza denboran zehar kokatzeko eta gizarteratzeko, eta herritarrekiko konpromisoaren eta erantzukizunaren oinarriak ezartzeko, Eusko Jaurlaritzak gobernu-plan bat prestatuko du **legegintzaldi bakoitzaren lehenbiziko 6 hilabeteetan**, lehendakariak zehaztutako gobernu-programaren arabera. Eduki irekia izango du, eta honako hauek bilduko ditu:"*

- 6.1 artikulua. Zuhurtziagabekeria handiegia da irizpiderik ez ezartzea zer jarduera esanguratsu ebaluatu behar diren identifikatzeko. Alde horretatik, Legebiltzarreko taldeen zuzenketa partzial batzuk jaso ditugu, eta horiek kontuan hartzekoak dira. Horrenbestez, honela mugatu daiteke:

*1.- Eraginari buruzko aurretiazko ebaluazioa egingo zaie Gobernu Planeko lege-proiektu eta plan estrategiko guztiei, bai eta **Gobernu Planaren arabera ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-eragin berezia duten** jarduera esanguratsu guztiei ere. Ebaluazio horretatik salbuetsita geratzen dira lege-aurreproiektu hauek:"*

- 9.2 artikulua. Politika publikoen ebaluazioaren kontuarekin beti sortzen da eztabaida: ea ebaluazio hori kanpoko ebaluazio independente baten bidez edo autoebaluazio-prozesu baten bidez egin behar den. Egia da bai batak bai besteak beren indarguneak eta ahulguneak dituztela. Arau-testuan, autoebaluazio-prozesuen alde egin da, *kudeaketagatiko erantzukizunaren* filosofiaren esparruan; horixe adierazten da Euskal Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduaren Legearen Proiektuaren 4.2.g) artikuluko printzipioan eta V. Tituluko II. Kapituluan, kudeaketa publiko aurreratuko sistemak eta ebaluazioa arautzen direnean. *Ebaluazio hezitzailearen* kontzepzio teorikoan oinarritzen da autoebaluazioa. Ebaluazio hezitzailea *prozesuak ebaluatzean* datza, eta berekin dakar ebaluaziorako metodologia bat eta tresna batzuk baliatzea informazioa lortzeko, laburbiltzeko eta interpretatzeko; informazio horrek bide ematen du kudeaketa, politikak, zerbitzuak eta programak hobetzeko erabakiak hartzeko. Autoebaluazioak informazioa

## ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-029

Orrialdea: 6/21

ematen du erabakiak hartzeko; esaterako, helburuak egokitzeko; planak, programak eta zerbitzuak modu kritikoan aztertzeko; erabilitako metodoak eta baliabideak aztertzeko, eta prozesuetan parte hartzen duten eragileak orientatzeko.

Dena den, autoebaluazioak objektiboa, autokritikoa, irekia eta plurala izan behar du, hobekuntzarik ekarriko badu. Hori dela eta, ezinbestekoa da legean ezaugarri horiek jasotzea eragile askoko ikuspegia txertatuz. Horretarako, honela idaztea proposatzen dugu:

*"9.2. Erantzukizun-arlo bakoitzean, arlo horretako politika taxutzeko eta gauzatzeko eskumena daukan sailak izango du, bere bitartekoen bidez edo behar diren kontratazioak eginda, emaitzen eta eragin metatuen ebaluazioa egiteko eta onartzeko eskumena. **Halaber, ikuspegi plural bat bermatu beharko da, eta, horretarako, gizarte-eragileen, pertsona onuradunen eta eraginpeko sektoreen ikuspegia eta unibertsitateen eta ikerketa-erakundeen aditu-ikuspegia txertatu beharko da.**"*

- 14. artikulua. Ebaluazioaren publizitatea. Politika publikoak eta zerbitzuen kalitatearen politikak ebaluatzeak bi helburu ditu: etengabe hobetzeko erabakiak hartzen laguntzea eta herritarrei kontuak ematea. Lege honetan arautzen den publizitatea kontuak ematera dago bideratuta batik bat; herritarren esku jarriko dira egindako ebaluazio-prozesua eta emaitzak. Dena den, eta kontuan hartuz administrazioan ebaluazio-kultura eskasa dagoela eta ebaluazio-ereduak, -tresnak eta -esperientziak ikasi eta partekatu beharko ditugula, oso baliagarria izango litzateke politika publikoen ebaluazioen erregistro bat sortzea, aukera emango duena modu profesionalean sistematikoki kontsultatzeko arlo berean edo eragin-ebaluazioetan ibilbide luzeagoa duten beste arlo batzuetan aurretik egindako ebaluazio-operazioak edo expost ebaluazioak. Beste artikulua bat txertatzea proposatzen dugu.

**14 BIS artikulua. Politika publikoen ebaluazioen erregistroa.**

**1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Politika Publikoen Ebaluazioen Erregistroa sortzen da, publikoa eta doakoa, eta han sartuko dira lege honetan xedatutakoa aplikatuz gauzatzen diren ebaluazio guztiak.**

**2.- Erregelamendu bidez arautuko dira erregistroaren egitura eta funtzionamendu-araubidea.**

## ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-029

Orrialdea: 7/21

- EAEko eskumen-banaketa oso konplexua denez, legegintzaldietan, politika publikoen plangintzaren eta ebaluazioaren arloan erakundeen arteko koordinazioa sustatzeko balizko tresnak aztertu direnean, Politika Publikoen Euskal Kontseilua sortzea proposatu da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundeen Funtzionamenduari eta Azterketari buruzko Txostena da azterketa berriena. 2013ko abenduan egin zen, eta Politika Publikoen Euskal Kontseilua sortzea proposatu zen bertan. Kontseilu hori "sektorez sektore" eratuko litzateke aztertu beharreko gaien arabera. Txostenean esaten denez, euskal administrazioen arteko eztabaida-organo bat izateaz gain —ez da zehazten norik osatuko lukeen organo hori, ez eta zein izango litzatekeen barne-funtzionamendua ere—, aukera emango luke eskumenak desegoki erabiltzea saihesteko tresna batzuk ezartzeko, etorkizunean arazo horiek berriz ez agertzeko "arau-proposamenak" proposatuko lituzke eta erakunde-maila desberdinen arteko "koherentzia" handituko luke, bai eta politika publikoen ebaluazioa ere.

Halaber, gaur egun Legebiltzarrean izapidetzen ari diren udal legearen proiektuan ere, Politika Publikoen Euskal Kontseilua sortzea aurreikusten da, euskal udalerrien eta erakunde autonomiko eta foralen arteko lankidetzaren harremanak ezartzeko eta, horrela, toki-gobernuaren esparruari eragin diezaioketen politika publikoak diseinatu, egin, gauzatu eta ebaluatzeko orduan udalerrien interesak aintzatesten eta aztertzen direla bermatzeko.

Horrenbestez, oso egokia da lege-proiektu hau erabiltzea organo horren konfigurazioa behin betiko arautzeko. Proposamen gisa, alderdi hauek izan ditzake:

**14 TER artikulua. Administrazioen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren, politika publikoen plangintzaren eta ebaluazioaren: Politika Publikoen Euskal Kontseilua**

**1. Politika Publikoen Euskal Kontseilua sortu da, politika publiko nagusiak epe ertainean eta luzean planifikatzeko eta ebaluatzeko orduan euskal administrazio publikoen artean lankidetzaren jarduteko eta koordinazioa bermatzeko, jardun publikoak ahalik eta emaitza eta eragin onenak izan ditzan Euskal Autonomia Erkidegoan, administrazio bakoitzaren eskumenak errespetatuz betiere.**

**2. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru erakunde-mailen arteko kooperaziorako eta lankidetzarako erakunde-egitura da Politika Publikoen Euskal Kontseilua, eta**

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-029

Orrialdea: 8/21

*helburutzat du euskal administrazioen arteko koordinazioa sendotzea, funtsezko politika publikoen epe ertaineko eta luzeko planifikazio estrategikoan eta ebaluazioan eta segimenduan, jardun publikoak emaitza eta eragin onenak izan ditzan Euskal Autonomia Erkidegoan.*

**3. Politika Publikoen Euskal Kontseilua Eusko Jaurlaritzan gobernu-ekintza estrategikoaren plangintzaren arloko eskumenak dituen sailari atxikiko zaio; aurrekontu-ondorioetarako soilik, ordea.**

**4. Eskumenak baliatzeko, autonomia organikoa eta funtzionala dauka, eta erakundeak berak erabakiko ditu lege honetan jasotako aurreikuspenak garatzeko barruko funtzionamendu-arauak.**

**5. Politika Publikoen Euskal Kontseiluak eginkizun hauek izango ditu:**

- a) **EAEko ekonomia, gizartea eta ingurumena epe ertainean eta luzean modu iraunkorrean garatzeko estrategiak identifikatzea**
- b) **Estrategian ezartzen diren asmo eta helburuetan lortzen diren emaitzak eta eraginak ebaluatzea eta horien segimendua egitea**
- c) **Administrazioen artean lankidetzeta eta informazio-trukea sustatzea, erakunde-maila bakoitzaren eskumeneko politikak gauzatzeko orduan (arau-ekimenetan, planak taxutzean, programak kudeatzean, zerbitzuak ematean, laguntzarako azpiegiturak kudeatzean...)**
- d) **Lankidetzarako tresnak eratzea, hau guztia lortzeko:**
  - **Sektore-esparruetako etorkizuneko egoerei buruz eztabaidatzea eta hausnartzea**
  - **Esku hartzeko eredu bateratuak garatzea**
  - **Tresna teknikoak eta teknologikoak, esperientzia pilotuak eta jardunbide egokiak partekatzea**
  - **Herritarrei eta intereseko taldeei entzutea eta haiekin harremanetan egotea, arazo eta premia presazkoenentzako irtenbideak bilatzeko eta politikak eta zerbitzuak abiarazteko**



ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-029

Orrialdea: 9/21

**6. Hauek izango dira Kontseiluko kideak:**

- a) *Gobernu-ekintza estrategikoaren plangintzaren arloko eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailburua edo haren ordezkoa izango da Kontseiluko presidentea*
- b) *Gobernu-ekintza estrategikoaren plangintzaren koordinazioaren eta segimenduaren arloan eskumenak dituen sailburuordetzako goi-kargudun bat izango da Kontseiluko idazkaria*
- c) *18 kide izango ditu: Eusko Jaurlaritzak sei ordezkari izango ditu; foru-aldundiek, bina, eta udalerriek, berriz, sei. Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak Lehendakariak izendatuko ditu; foru-aldundienak kasuan kasuko foru-araudiaren arabera izendatuko dira, eta udalerriei dagozkienak, berriz, ezarpen handiena duen euskal udalerrien elkarteak proposatu, eta Lehendakariak izendatuko ditu. Udalerrien ordezkariak alkate edo zinegotzi izan beharko dute, nahitaez. Toki-ordezkariak aukeratzekoan lehentasuna emango zaie lurralde-irizpideari, genero-irizpideari eta tamaina desberdinetako udalerrien presentzia zaintzeari.*

**7. Kontseiluko kideak lau urterako izendatuko dira, eta kide izaten jarraituko dute harik eta izendatu zituen erakundeak kargutik kendu arte, edo kargua uzteko legezko kausaren bat edo Kontseiluak berak onartutako funtzionamendu-arauetan aurreikusitako kausaren bat gertatu arte.**

**8. Kontseiluak berak zehaztuko du bere funtzionamendua, eta sektore-batzordeak ezarri ahalko ditu, modu espezializatuan aztertzeke arlo hauetako eta beste batzuetako politikak: osasuna, ekonomia-garapena, ikaskuntza eta hezkuntza, lurralde-antolamendua, gizarte-kohesioa, ingurumena eta garraio-azpiegiturak. Halaber, esku-hartzeen ikuspegi integrala bermatu beharko du, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-iraunkortasunaren ikuspuntutik. Kontseiluak zehaztuko du batzorde horien helburua, iraupena eta osaera. Batzorde horietan, euskal administrazioetako hiru erakunde-mailetakoko kideek ez ezik, egokitzat jotzen diren eragileek edo interes taldeek ere parte hartu ahalko dute, behin-behinean edo modu egonkorrean, aholku emateko, parte hartzeko edo kontsulta egiteko, bai eta lantzen diren gaietan aditu diren pertsonen ere.**

**ANTOLAMENDU-TXOSTENA**

**Dokumentua:** IO-2014-029

**Orrialdea:** 10/21

- Bereziki aipatu beharrekoa da III. titulu osoa, gardentasunari buruzkoa, berrikuntza publikorako oinarrizko zutabe izateaz gain berarekin antolamendu-mekanismo eta prozedura berri batzuk baitakartza, berandu gabe ezarri beharrekoak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legeak autonomia-erkidego guztientzat oinarrizko izaeraz finkatzen duen informazioa eskuratzeko eskubidea bermatzearen. Euskal sektore publikoarentzat ezarritako gardentasunaren eskakizun-maila oinarrizko legerian ezarritakoaren gainetik goratu izanari bere balioa eman behar zaio, eta horrek erakusten du aurrerapenarekin eta demokrazia sakontzearekin konprometitua dagoen administrazio-eredu baten aldeko apustua egiten ari direla. Eta hori betetzeko, prozedura arinak eta antolamendu-aginduak finkatzen dira, horiek ezarri daitezten bermatzeko ezinbestekoak, eskumena departamentu-unitateetan deszentralizatu dadila ahaleginduz eta, aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren aldetik hori bultzatuko duen unitate baten bitartez koordinatuko dela bermatuz. Unitate horrek kontuak eman beharko dizkie Eusko Legebiltzarrari nahiz herritarrei, oro har.
- 16.1. artikulua. Paragrafo hori bere horretan irakurrita, badirudi gardentasuna noranzko bakarrekoa dela, hots, gardentasunak lagundu egiten duela herritarrak informatuta egon daitezten baina ez diela eragiten erabaki publikoei, zerbitzuen antolamenduari... Horregatik, azpimarratu egin beharko litzateke gardentasunak berekin dakarrela auzi publikoetan erantzunkidetasunez jokatzea. Horrenbestez, testu hau gehitu dakioko:

*"...eta zein diren jardueren erantzuleak. **Gardentasunak lagundu egiten du herritarrak informatuta egon daitezten, eta, horri esker, herritarrek benetan parte har dezakete erabakiak hartzeko prozesuetan, zerbitzuen kalitatearen hobekuntzan eta auzi publikoen erantzunkidetasunean.***

- 16.5. artikulua. EAEko erakunde-maila bakoitzak bere burua antolatzeko duen ahalmenari zor zaion errespetuarekin eta nahitaezko izan gabe, euskal erakundeen eskura gardentasun-atari bat jartzeko aukera jaso lezake lege-proiektuak —atari hori Gobernu Irekiaren Plataforman jarriko litzateke—, aukera emango lukeena euskal administrazio guztien gardentasunari buruzko informazio publikoa eskuratzeko, eduki-kudeatzaile partekatuak erabiliz edo haien webguneetara jotzeko estekak jarritz. Atari hori lankidetzahitzarmenen bidez eratuko litzateke, eta aukera emango luke edozein euskal

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-029

Orrialdea: 11/21

administrazioen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko. Administrazio eskudun bakoitzaren esku geldituko litzateke espedienteak bideratzea. Horren bidez, herritarren eskaera honi erantzungo litzaioke: gardentasun-zerbitzuen leihatila bakarrak eratzea herritarrentzat, erakunde-maila bakoitzaren eskumenak errespetatzen dituztenak. Honela idatz daiteke:

***"5. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak gainerako euskal erakundeen eskura jarriko du Autonomia Erkidegoaren Gardentasun Ataria —Gobernu Irekiaren Plataforman—, foru- eta toki-erakundeek beren informazioa argitaratu dezaten edo atari horretan beren gardentasun-atari korporatiboetara jotzeko estekak jar ditzaten, herritarrek puntu bakar batetik eskuratu ditzaten euskal administrazio guztiei buruzko gardentasunarekin lotutako informazio garrantzitsua eta zerbitzuak. Atari horretan, euskal administrazio publiko guztien informazio publikoa lortzeko eskabide elektronikoak eskuratu ahalko dira, erakunde bakoitzaren egoitza elektronikora jotzeko esteken bidez. Eusko Jaurlaritzak, gardentasun-arloan eskumena duen sailaren bidez, lankidetzatresnak formalizatuko ditu helburu hori lortzeko."***

- 19.1 a) artikulua. Idatz-zati horretan, irizpide murriztaile bat sartzen da, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearekin bat ez datorrena. Izan ere, alderdi politikoak, erakunde sindikalak eta enpresaburuen erakundeak behartuta dauden subjektuak dira (19/2013 Legearen 3. artikulua), diru-laguntzak jaso edo ez. Alde horretatik, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak egindako txostenean azaltzen denez, Legearen 5. artikulutik 8. artikulura arteko artikuluetan jasotako edukiak modu aktiboan argitaratzeko betebeharra besterik ez dute; are gehiago, administrazio publiko batekin egindako kontratuak eta hitzarmenak soilik argitaratu behar dituzte. Orobat argitaratu behar dituzte diru-laguntzak, baldin eta diru-laguntza eman duen organoa administrazio publiko bat bada. Behartu dauden subjektu horiek ez dituzte zertan argitaratu jarduera pribatuak. Hori dela eta, murrizketa hori kentzea proposatzen dugu.

***"a) Jarduera Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gauzatzen duten ~~eta funts publikoen kargura ordaindutako diru-laguntzak jasotzen dituzten~~ alderdi politikoak, erakunde sindikalak eta enpresaburuen erakundeak."***

**ANTOLAMENDU-TXOSTENA**

**Dokumentua:** IO-2014-029

**Orrialdea:** 12/21

- 25.1. artikulua. Aurrekontu-konpromisoetara doitutako plangintza errealista bat bermatzeko, aurreikusitako aurrekontua plangintzan txertatu beharko litzateke, eta benetako aurrekontu-egikaritzea, ebaluazioan, testua honela taxutuz:

*"1. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeek beren urteko eta urte anitzeko planak eta programak argitaratuko dituzte, helburu zehatzak, helburuak lortzeko aurreikusi diren bitartekoak —bai eta aurrekontuak ere— eta denborak eta betetze-maila —baita aurrekontu-egikaritzea ere— eta emaitzak adieraziz —zeinak aldiari aldiari ebaluatu eta argitaratu egin beharko diren—, eta neurketa-adierazleak eta ebaluazioan lortutako balorazioak ere jasoz. Beren eskumeneko zerbitzu publikoen betetze-maila eta kalitatea baloratzeko behar den informazio estatistikoa ere sartzen da informazio horren barruan."*

- 25.2. artikulua. Lege honetan edo Euskal Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduaren Legearen Proiektuan, EAEko sektore publikoko erakundeen ebaluazioen emaitzak argitaratzea aurreikusi beharko litzateke, IV. tituluko bigarren kapituluan araututako efikazia materialaren eta jardueraren ebaluazioari dagokionez. Horretarako, testua honela osatu beharko litzateke:

*2. Sistematikoki argitaratuko dira, ebaluazioaren publizitateari buruz ezarritako moduan eta edukiekin, arau honen arabera derrigor egin beharreko ebaluazioak, **Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduaren Legearen IV. tituluko bigarren kapituluan euskal sektore publikoko erakundeentzat ezarritako efikazia materialaren eta jardueraren ebaluazioak** eta Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluaren erabakiz ebaluatu beharreko esku-hartze publikoen urteroko zerrendan azaltzen diren ebaluazioak.*

- 26.1 d) artikulua. Argiagoa da 19/2003 Legearen 7 d) artikuluko testua erabiltzea. Hortaz, honela osa liteke:

*"d) Informazio publikoaren edo jendaurrean jartzearen izapidea behar duten dokumentuak argitaratuko dira, bai eta **arau-testuak egiteko espedienteak** osatzen dituzten nahitaezko memoria eta txostenak ere, eta, bereziki, inpaktuaren ebaluazioa,*

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-029

Orrialdea: 13/21

*prozedura osoaren memoria laburra, memoria ekonomikoa eta sektoreko legeriak ezartzen duen gainontzeko nahitaezko dokumentazio guztia."*

- 26.1 e) artikulua. Egokiagoa da bitarteko elektronikoez mintzatzea. Hortaz, ordeztea proposatzen dugu.

*"e) Katalogo eguneratua, indarrean dauden administrazio-prozedura guztiena, eta, horien artean, ~~formatu elektronikoan~~ **bitarteko elektronikoetan** dauden prozedurena; kasu guztietan, administrazio-isiltasunari eta jar daitezkeen errekurtsoei buruzko informazioa erantsiko da."*

- 26.1 j) artikulua. Ez dago argi zeri egiten dion erreferentzia. Lege-aurreproiektuen eta xedapen orokorren proiektuen memoria guztiei egiten badie erreferentzia, hori jasota dago 26.1 artikuluko d) idatz-zatian. Hortaz, ezabatzea proposatzen dugu.

**"j) Xedapenen izapideak egiaztatzeko memoriak eta dokumentuak."**

- 27.2. b) artikulua Baliagarriagoa eta konprometituagoa da diru-laguntzak zer epetan argitaratu behar diren zehaztea, eta, gaur egun, teknologiari esker, hori egin daiteke. Izan ere, laguntza gehienak digitalizatuta daude. Bestalde, Kataluniako legea eredutzat hartuta, interes handikoa izango litzateke onuradunak identifikatzeko orduan muga bat jartzea, baldin eta laguntzek hartzaileak estigmatiza baditzakete. Horregatik guztiagatik, testua honela idaztea proposatzen dugu:

*b) Emandako diru-laguntza eta laguntza publikoen onuradunen zerrenda argitaratuko dute, zenbateko, helburu eta xedek adierazita, **laguntza emango dela jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo 15 egunetan. Zaurgarritasun sozialaren arazoak direla-eta ematen diren diru-laguntzen eta laguntza publikoen kasuan, onuradunen izena ez da adieraziko.***

- 27.2. d) artikulua. Kataluniako legean, 10.000 eurotik gorako diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeak behartuta daude beren goi-kargudunen ordainsariak jakitera ematera diru-laguntza ematen duen administrazioaren bidez. Gardentasun-neurri hori oso interesgarria da; hartara, saihestu egingo da diru-laguntza publikoen parte bat diru-laguntza

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-029

Orrialdea: 14/21

horien helburuaz besteko helburuetarako erabiltzea eta funtsa publikoen kargura bidegabeki aberastea. Horrenbestez, testu hau gehitu dakioko:

**"d) 10.000 eurotik ?? gorako laguntza eta diru-laguntza publikoak emateko oinarrietan, betebeharrak hau sartu beharko da: onuradunek, pertsona juridikoak izanez gero, behartuta dauden subjektuei jakinarazi beharko diete beren zuzendaritza- edo administrazio-organoen ordainsariei buruzko informazioa, ordainsari horiek jakitera emateko. Laguntzak edo diru-laguntzak emateko lehia-prozesurik aplikatzen ez den lege-egoeretan, betebeharrak horrek berekin ekarriko du dagokion egintza edo hitzarmena egitea."**

- 28.4. artikulua. Ez dateke oinarritzko legea baino murriztaileagoa izan (oinarritzko legeak ezartzen du ezinbestekoa dela kontratu guztiak jakitera ematea, baita kontratu txikiak ere). Salbuespen bakarra da hiru hilean behin jakitera eman ahal izango direla. Hortaz, murrizketa ezabatzea proposatzen dugu.

**"4. Kontratu txikiei buruzko informazioa hiru hilean behin eman ahal izango da, ~~eta nahitaezkoa da 3000 eurotik gorako kontratu txiki oro banaka argitaratzea.~~"**

- Hirugarren kapitulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea. Badago aldarri zabal bat, herritarrek posta elektronikoko bidez edo elkarrekintzarako aukera eman arren ondorio juridikorik ez duten atari irekien bidez administrazioarekin egiten dituzten kontratuak arautzearen aldekoa. Atzerakada handia izango litzateke informazioa eskuratzeko eskubidea erabiliz soilik formalizatzea informazio publikoa eskuratzeko, kontuan hartu behar baita horrek berekin ekarriko duen administrazio-prozedura eta zama burokratikoa. Duela zenbait urtez geroztik, etengabe eta modu masiboan ari gara informazioa herritarren eskura jartzen eta herritarren ekarpenak, iradokizunak eta proposamenak webguneen, posta elektronikoen eta mezuen bidez jasotzen. Berez, Administrazio elektronikoa eraberritzeko aditu-batzordeak horren berri eman zuen 2015eko maiatzaren 4an egindako bileran (Lorezon Cotinoren txostena). Zehazki, hauxe esan zuen: "bada garaia herritarrek posta elektronikoen bidez eta, hala dagokionean, sare sozialen bidez Administrazioarekin dituen kontaktu informalek erabilera arautzeko". Berez, autonomia-erkidego batzuek, hala nola Valentziako Erkidegoak, dagoeneko arautu dute. 34 bis artikulua gehitu daiteke, testu honekin:

**ANTOLAMENDU-TXOSTENA**

Dokumentua: IO-2014-029

Orrialdea: 15/21

**“34 bis artikulua. Komunikazio informal elektronikoak**

**1. Komunikazio informal elektronikotzat hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateek herritarren eskura jarritako bitarteko elektroniko jakin batzuen bidez egiten diren komunikazioak —horien artean, Gobernu Irekiaren Plataforma—, eta inolaz ere administrazio-erregistroen bidez egiten ez direnak; komunikazio horien helburua da informazio orokorra edo espezializatua lortzea, bai eta iritzia eta erantzuna ematea ere kontu orientagarri edo informatibo hutsei buruz, indibidualizatuak izan edo ez, eta ez dute inolako ondorio juridikorik sortzen erantzunaren edukia edo forma dela-eta edo erantzunik ez emategatik edo denboraz kanpo emategatik.**

**2. Komunikazio informal elektronikoek honako ezaugarri hauek izango dituzte:**

- a) Ez da nortasunaren egiaztapen berezirik eskatuko, eta ez dute baliorik izango erregistro elektroniko gisa.**
- b) Ez dira hartzen informazio publikora iristeko eskabidetzat, ez eta administrazioarekiko errekurtsotzat edo erreklamaziotzat ere; hortaz, komunikazioa aurkezteak ez ditu ez hasten ez geldiarazten errekurtsoa edo erreklamazioa jartzeko epeak.**
- c) Ez dira eskabide, kexa edo iradokizun, beren araudiaren babesean.**
- d) Erantzunak ez dira lotesleak ez komunikazioak egiten dituenarentzat edo ez erantzuten dituen administrazio edo langileentzat.**
- e) Bitarteko elektroniko informalen bidez bideratzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren atari korporatiboen espazio informaletan.**

**3. Atari korporatiboetan herritarrekin komunikazio informal elektronikoen bidez interakzioan jarduteko jarritako bitarteko elektronikoek, betiere, osatu egingo dituzte, eta inola ere ez ordeztu, aplikagarria den araudian ezarritako prozeduraren eta bermeen bidez informazio publikora iristeko eskubidea bermatzeko ezinbestean jarri beharko diren mekanismoak."**

- 45.4. artikulua, 2. atala. Osatuago geldituko litzateke honela idatziz gero:

**ANTOLAMENDU-TXOSTENA**

**Dokumentua:** IO-2014-029

**Orrialdea:** 16/21

*"Horretarako, euskal sektore publikoa osatzen duten administrazioek lankidetzabideak jarriko dituzte, **elkarrekintzan jarduteko eta, horren bidez, arrazoi hori dela-eta sektore publiko desberdinen aurrean eskaerak egin beharrak dakartzan administrazio-kargak murrizteko.**"*

- IV. TITULUA. Herritarren parte-hartzea. IV. titulua ere funtsezkoa da. Izan ere, herritarrek auzi publikoetan parte hartzeko duten eskubideari heltzen dio (lehenbiziko aldia da Eusko Jaurlaritzan gai horri heltzen zaiola), antolamendu-neurri batzuk taxutzen ditu —hala nola hainbat motatako interesen ordezkari diren taldeen eta herritarren partaidetzarako eta lankidetzarako erregistroa, bizkorra eta eraginkorra izan daitekeena gobernua herritarren iritzipean jarri beharreko proposamenak pertsona eta kolektibo interesdunei jakinarazten zaizkiela bermatzeko—, eta Euskal Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduaren Legearen proiektuaren 19. artikuluan arautzen diren herritarren eta elkarten partaidetzarako gune egonkorrekin osatzen da, edo bitarteko elektronikoen bidezko partaidetzarekin (proiektu horren 72. artikulua dago hori arautua).
- 56.3. artikulua. Legebiltzarreko zenbait taldek beste eskubide bat txertatzeko eskatu dute; zehazki, parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko baliabideei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea. Artikulu honetan jaso daiteke eskubide hori. Izan ere, herritarren partaidetzaren arloan, badugu zer ikasia, eta esperientziak bildu behar ditugu.

***h) Parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko baliabideei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.***

- 61.1 g) artikulua. Herritarren partaidetzarako bide informal berriak sortzeak ez luke berekin ekarri behar sortuta dauden bide formalak ezabatzea, eta, alde horretatik, denek jakin beharko lukete zer espero den haiengandik, zer bitarteko jarriko diren haien eskura parte har dezaten eta zein diren beren partaidetzaren emaitzak. Horregatik, parte-hartzezko prozesuetan parte hartzen duten pertsonen beste eskubide bat txertatu beharko litzateke; hau da, parte-hartzezko edo kontsultazko organo kolegiatuen iritzia edo gai bererako ezarri diren herritarren partaidetzarako gune egonkorren iritzia zein den jakiteko eskubidea. Idatz-zati hau txertatzea proposatzen dugu:



## ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-029

Orrialdea: 17/21

***"g) Sektore Publikoko Antolamendu eta Funtzionamenduaren Legean araututako herritarren eta elkarten partaidetzarako gune egonkorrek eta parte-hartzezko edo kontsultazko organo kolegiatuek, helburu bererako esku hartu dutenek eta, horrenbestez, dagokion administrazio publikoaren erabaki politikorako aintzat har daitezkeenek, egindako proposamenak eta gogoetaren emaitzak zein diren jakitea.***

- 61.2. c) artikulua. Parte-hartzezko prozesuen emaitzek eragina izan beharko lukete arduradunen erabakietan, eta erabaki horiek, herritarren proposamenek bat etorri edo ez, gerora gauzatu litezke edo ez. Proposamenak egiten lagundu duten pertsonak eskubidea izan beharko lukete jakiteko ea erabaki horiek benetan gauzatu diren edo ez. Kontuak ematearen printzipioaren oinarria da, eta erantzunkidetasuna dakar bi noranzkoetan. Ez da gauza bera zure iritzia kontuan hartuko ez dutela uste duzunean iritzia ematea eta ziurtasuna izatea iritzia erabaki bilaka daitekeela, horrek berekin dakartzan ondorioekin. Horrek partaidetza konstruktibo erantzunkidea sustatzen du. Eskubide hau txertatzea proposatzen dugu:

***c) Parte-hartzezko prozesu horren ondorioz hartutako erabaki politikoak gerora benetan nola gauzatzen diren eta zer ondorio eta eragin dituzten jakitea.***

- 62 bis artikulua. Herritarren partaidetzari dagokionez lege-proiektu honetan garatutako testua, hein handi batean, Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Partaidetzari buruzko Liburu Zuria -Abiapuntua- delakoan oinarritzen da. EAEko 400 pertsona eta 150 erakunde publiko eta pribatu baino gehiagok parte hartu dute liburu hori egiten. Bertan, konpromiso batzuk ageri dira. Horien artean dago liburua mantentzea eta aberastea, herritarrek auzi publikoetan izan dezaketen partaidetzaren benetako euskal eredu bat lortzeko. Testua Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zuten, beharrezkotzat jotzen baitzen Legebiltzarrean herritarren ordezkari direnen nolabaiteko babes izatea, eta, espero bezala, merezi duen aintzatespena izan zuen. Baina gaur egungo testua abiapuntu bat baino ez da, eta, Europan beste liburu zuri batzuekin egiten den antzera dokumentu ofizial gisa mantentzeko (aintzatesteko) eta aberasteko, bitartekoren baten bidez bermatu beharko litzateke. Lege-proiektu hau izan liteke horretarako tresna onena. Hortaz, beste artikulua bat txertatzea proposatzen dugu, bi puntu dituen.

ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-029

Orrialdea: 18/21

**62 bis artikulua. Demokraziari eta Herritarren Partaidetzari buruzko Liburu Zuria.**

**1. Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Partaidetzari buruzko Liburu Zuria - Abiapuntua- euskal erakundeek eta antolatutako eta antolatu gabeko herritarrek egin dute, elkarlanean egin ere. Dokumentu ofizial horrek zabalik jarraituko du, denboran zehar era jarraituan, herritarrekin batera landu dadin, eta hau guztia txertatuko du, herritarren partaidetzari dagokionez:**

**a) hitzartzen diren kontzeptuak eta ideiak; hain zuzen ere, zalantzak eta zehaztugabetasunak argitzen dituztenak**

**b) beharrezko kontsentsurik gabeko elementuak, kontsentsua lortzeko landu beharrekoak**

**c) egindako jardunbide egokiak, erreferentzia gisa balio dutenak Euskadiko ekintza publikoari balioa ematen diotelako edo haien parte-hartzezko prozesua eredugarria delako**

**d) eta aurrera egiteko konpromiso politikoak, erakundeek eta herritarrek hartzen dituztenak gobernantza-eredu berri hori ezartzeko, helburutzat duena balio publikoa sortzeko konpromiso kolektiboan euskal gizarteak dituen ahal publikoak eta pribatuak aintzatestea eta haiengan eragitea.**

**2. Herritarren partaidetzan eskumena duen sailak sustatuko du Liburu Zuria eduki horiekin aberastea, instituzioekin, erakunde publiko eta pribatuekin eta antolatutako eta antolatu gabeko herritarrekin deliberazio- eta kontsentsu-prozesuak bideratuz, ikaskuntzarako eta euskal gizartearen hazkunde partekaturako bide gisa, Gobernu Onaren printzipioak oinarritzat hartuta; alegia, osotasuna, ekintza publikoaren efikazia eta efizientzia, gardentasuna, partaidetza eta denon onerako lankidetzaren erantzunkidea."**

- 63. artikuluan akats txiki bat dago gaztelaniako bertsioan.

*"Las entidades que conforme a esta Ley integran el sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi fomentarán la participación de las personas interesadas, de los grupos representativos de intereses ~~de intereses~~ diversos"*

- 65. artikuluan, herritarrek arauzko ekimenak egin ditzatela sustatzeko prozedura gisa finkatutakoari buruz ohartarazpen txiki bat egin beharrean gaude, horren konplexutasuna

**ANTOLAMENDU-TXOSTENA**

**Dokumentua:** IO-2014-029

**Orrialdea:** 19/21

kontuan izanda, zeren eta gerta baitaiteke herritarren proposamenetako batzuek nahikoa pisurik ez izatea bai denboraz eta bai baliabide ekonomikoz ere hain garestia eta nekeza den prozesu bat osatzeko, eta agian nahikoa izan daiteke prozedura xumeagoren bat, hori beti posible izaten delako -Lege batean arautua dagoen ala ez kontuan izan gabe-, baldin eta arduradun publikoen jarrerak gero eta irekitasun handiagoa erakusten badu eztabaida publikorako eta, azken batean, gai publikoen kudeaketan herritarrek parte hartzearen aldeko joera handiagoa badu.

- 66.4 artikulua oso koherentea da, eta oso bat dator Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Partaidetzari buruzko Liburu Zuriaren edukiekin. Izan ere, partaidetza ez da noranzko bakarrekoa —administrazioak eskatzen duena—, eta administrazioak prest egon behar du bere laguntzaren bidez herritarren ekimenaren bidez sortu eta premia publikoak konpontzeko edo estaltzeko herritarren proposamenak sortzea helburu duen partaidetza bideratzeko. Agian laguntzen artean orobat ezar liteke administrazioak hala eskatzen zaionean parte-hartezko foroetan parte hartzea, bere ikuspegia izateko eta herritarrek egiten dituzten gogoetak entzuteko. Hortaz, testua honela hobetzea proposatzen dugu:

"4. 4. Proposatutako jarduera ezartzeko edo garatzeko xedez, administrazio publikoaren ekarpena, besteak beste, honako hau izan daiteke: babesle izatea; ondasun publikoak lagatzea, aldi baterako edo noizbehinka; jarduera gauzatzeko laguntza teknikoa ematea; jarduera hedatzen eta ezagutzera ematen laguntzea, erakundeen komunikazio-bideen bitartez; sari, aintzatespen edo aipamenak; **hala eskatzen zaionean zuzenean parte hartzea topaketetan eta foroetan**, edota antzeko beste neurri batzuk.

- 71. artikulua. Beste autonomia-erkidego batzuetako gardentasunari buruzko legeen aldean, bereziki berritzailea da Gardentasunaren Euskal Kontseiluko kideen artean gizarte zibileko bi ordezkari sartzeari, Arartekoak proposatu eta bi urtean behin aldatuko direnak. Horretaz gainera, Legebiltzarreko, Arartekoko, Unibertsitateko, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteetako, enpresaburuaren elkarteetako eta sindikatu etako ordezkariak egongo dira kontseiluan, eta horrek oso izaera herritar eta independente positiboa ematen dio.
- 81.2 a) artikulua. Garrantzitsua da gobernu irekiaren plataformaren helburuen artean sartzeari informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eskura jartzea, herritarrekin

## ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-029

Orrialdea: 20/21

elkarrekintzan jarduteko puntu gisa. Horrek ez du esan nahi puntu bakarra denik, ez eta formalki egokiena denik ere; izan ere, beti jo beharko da egoitza elektronikora administrazio-prozedura bat hasteko, gune segurua eta formala baita. Dena den, herritarren ikuspegitik, puntu eskuragarriena da. Bestalde, garrantzitsua da artikulua honetan Gardentasun Ataria deritzon webgunea sartzeari, dagokion arauaren arabera nahitaez argitaratu beharreko informazioa zentralizatzeko. Hori dela eta, hau gehitzea proposatzen dugu:

*a) Aurreko artikuluetan aipatzen den guztiaren berri ematea, hori izango baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak modu aktiboan argitara eman beharreko oinarrizko informazioa, **eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko prozedura eskura jartzea. Informazio hori Gardentasun Atarian egongo da jasota.***

- 81.2 c) artikulua. Ongi dago formulatuta, eta berretsi egiten du **34 bis artikulua. Komunikazio informal elektronikoak** artikulua sortuz komunikazio informal elektronikoak arautzeko egin dugun proposamena.
- 81. artikulua. Azpimarratu beharra dago, halaber, herritarrekin eta kudeatzaile publikoekin elkarri eragiteko gaur egun erabiltzen diren plataformen koordinazio handiagoa antolatzea eskatzen duela arau-testuan finkatzen den Gobernu Irekiaren Plataformak, eta nolabait ere, halaber, administrazio-prozedura desberdinen kudeaketa elektronikorako garatu diren eta egun barne-konsumokoak diren sistema informatiko arruntekin bat etorri beharko dute, informazio horren zati handi bat barneratu beharko delako herritarrek kontsultatu dezaten, baldin eta kudeaketa gardenago baten bidean aurrera egin nahi badugu.
- Hirugarren xedapen gehigarria. 1 b) idatz-zatia. Gainerako artikuluen testuekiko koherentziari euste aldera, eskubide hori honela osatu beharko litzateke:

*"b) Zerbitzu publikoen **plangintzan eta ebaluazioan parte hartzeko eskubidea.**"*

- Lehenengo xedapen iragankorrean akats bat dago legearen artikulua aipatzen denean. "Lege honen 105. artikulua eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta

## ANTOLAMENDU-TXOSTENA

Dokumentua: IO-2014-029

Orrialdea: 21/21

*gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 24. artikulua aplikatuz aurkezten diren erreklamazioak*” jartzen duen lekuan, hauxe jarri beharko luke:

*"Lege honen 46. artikulua eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 24. artikulua aplikatuz aurkezten diren erreklamazioak".*

- Azkenik, azpimarratzea komeni da, gaztelaniazko testuari dagokionez, oro har betetzen den arren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, lege horretan esaten dela “Euskal herri-agintek ez dutela hizkera sexista erabiliko, ez zuzenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan” eta bi sexuei buruzko termino batzuk maskulinoan aipatzen direla. Alde horretatik, gaztelaniazko testua berrikusi beharko litzateke. Esaterako, "ciudadano" terminoa erabiltzen da, eta "ciudadanía edo ciudadanas y ciudadanos" terminoak erabil daitezke zioen azalpenean, 17. artikuluan (izenburuan eta 1. eta 2. paragrafoetan), 26. artikuluan, 59.2 artikuluan, 80.1 artikuluan eta azken xedapenaren 3. paragrafoan 8. artikulua aipatzen denean; 24.4 artikuluan, "empleado" terminoaren ordez "personal empleado" edo "empleadas y empleados" jar daiteke; 51.2 eta 54.2 artikuluetan, "directivos" terminoaren ordez "personal directivo" jar daiteke...

**Ondorioak:**

Horiek dira antolamenduaren eta prozeduren diseinuaren aldetik Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Legearen Aurreproiektuari egin dizkiogun oharpenak; betiere, kontuan hartuta zer eskumen ematen dizkiogun **apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuak, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak**, 18. c. artikuluan.